

IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLETAKO HEZIKETA ETA ASISTENTZIAKO ZERBITZUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ARAUA

8. araua

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. saileko 2. azpisailean xedatutakoari jarraikiz eta haren 28. artikuluan ageri den baimenaren babesean ezarri da.

Ordaintzeko betebeharra

2. artikulua.- Prezio publikoa haur-eskoletara joaten diren adin txikikoen guraso, tutore edo legezko ordezkariak ordaindu beharko dute.

Kudeaketarako eta diru-bilketarako arauak

3. artikulua.- Prezio publikoa hileroko osoen bidez ordainduko da, aldezturik, eta haur-eskolan onartua izateko nahitaezko baldintza izanen da ordainagiria erakustea.

Tarifen aplikazioa

4. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak urtean-urtean eta ikasturtean-ikasturtean Nafarroako Gobernuak 0-3 urte bitarteko haurrentzako udal-ikastetxeetarako onetsitakoak izanen dira.

5. artikulua.- Tarifak zehazteko oinarri diren famili diru-sarrerak familiako kide direnek lortutakoak oro dira. Familiaren diru-sarreratzat Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpeneko familia-unitatearen zerga-oinarria hartzen da.

Zerga horren aitorpena egin beharrik ez dutenek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Nafarroako Gobernuaren Ogasun Departamentuak emaniko frogagiria, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena aurkeztu ez dela adierazita.

- Haur-eskolaren zerbitzua eskatzen duten haurren guraso, tutore edo legezko ordezkarien langile-bizitzari buruzko txostena eta familiaren diru-sarrerak zehazteko behar diren agiriak (soldaten eta pentsioen egiaztagiriak, TC-2 agiriak eta abar).

6. artikulua.- Hileko tarifak Eranskinean ezarritakoak dira, eta familiaren *per capita* errentaren arabera aplikatuko dira.

Aplikatu beharreko tarifak zehazteko, honako hau joko da urteko *per capita* errentatzat: familia-unitateak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitorpenean jasotako zerga-oinarria edo, bestela, familiak abuztuaren 1ean dituen diru-sarrerak edo haurra ikastetxera joaten hasten den datan dituenak –baldin eta haurra ikasturtea hasi eta gero hasten bada hara joaten–, betiere behar bezala egiaztatutako, familiak dituen kide-kopuruaz zatitu eta eragiketa horretatik ateratako zenbatekoa.

Edozein kasutan aitaren zein amaren aitorpena hartuko da aintzat, betiere tartean ez bada banantzeari edo dibortzioari buruzko epairik, edo ezkontzaz kanpoko seme-alabarik dela medio hartutako neurri legalik. Kasu horietan, haurraren zaintza eta babesa zer gurasok eduki eta horren Aitorpena hartuko da kontuan, eta horren zerga-oinarriari epaian xedatutako urteko kopurua gehituko zaio.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azkeneko aitorpena aurkezten ez dutenei edo familiako diru-sarrerak egiaztatzen ez dituztenei hileko gehieneko kuota aplikatuko zaie.

7. artikulua.- Aplikatutako tarifak ezin dira ikasturtean barna berraztertu edo aldatu.

8. artikulua.- Haur-eskola batean bi haur dituzten familiei % 50 murriztuko zaie bigarren haurri dagokion tarifa, tarifa horrek, edonola ere, ezarritako gutxieneko tarifak beste joko duela.

Haur-eskola batean hiru haur edo gehiago dituzten familiei % 50 murriztuko zaie bigarren haurri dagokion tarifa eta ezarritako gutxieneko tarifa ordainduko dute hirugarren seme-alabarengatik eta hurrengoengatik.

9. artikulua.- Haur-eskoletan matrikulatutako haurrek orok ordaindu behar dituzte dagozkien tarifak, bidezko arrazoiak direla medio eskolara joaten ez direnean ere. Matrikula formalizatzeak berekin dakar, borondatezko baja egiten den kasuetan izan ezik, ikastetxera joan eta ikasturteko hamaika hilekoak ordaintzeko konpromisoa. Matrikula behin ikasturtea hasita formalizatzen bada, tarifak haurra ikastetxera joaten noiz hasi eta hortik aitzina ordainduko dira; eta borondatezko baja egiten bada, baja zein hiletan eman eta hilabete horri dagokion tarifa oso-oso-oso ordaintzeko galdutako da.

TARIFA-ERANSKINA

Haur-eskoletako erabiltzaile bakoitzari aplikatu beharreko hileko tarifa kasuan kasuko ikasturtean Nafarroako Gobernuak 0-3 urte bitarteko haurrentzako udal-ikastetxeetarako ezarritakoa izanen da.